

## **KANALAK**

Gure enpresak, produktuak saldu ordez, zerbitzu mota ezberdinak eskainiko ditu eta beraz, bezeroengana iristeko kanala garrantzitsuena gure aplikazioa izango da: Taiworkers zerbitzuak. Egunean 24 orduak egongo dira gure bezeroekin kontaktuan. Arazoren bat baldin balego, bertan dagoen 943553435 telefonora deitzeko aukera izango da edota [taiworkers@ekiproject.com](mailto:taiworkers@ekiproject.com) gmailera mezu bat bidaliz.

Aplikazio horretan bezeroek, beraien iritzia eta proposamenak emateko aukera izango dute. Proposamen horiek eta beraiek gustuko dituzten gauzak kontuan harturik mota ezberdinetako ekintzak egin eta zerbitzuak jasotzeko aukera izango dute. Enpresa berria sortzen den heinean, administrazioak dauden herrietan inkestak zabalduko ditugu gure enpresaren eskaintzak zein izango diren jakiteko.

Gainera, herriko denda txikiekin eta taxi zerbitzuarekin adostutako harremana publizitate bidez agertuko da, baita aplikazio bertan eta enpresa haien erakustokietan. Gure langileak bezeroengana iristeko, oinez edota taxi bidez joateko aukera izango dute, distantziaren arabera.